Kodea:

Andoaingo Udala

Baldintza Teknikoen agiria

Zerbitzu kontratua

Xedea: "Ongi etorri, gazte!": 10-16 urte bitarteko gazte etorri berrientzako euskara-murgiltze saioak diseinatu, garatu eta kudeatzea.

Jardunbidea: Zerbitzu kontratua.

Izapidetzea: Ohikoa.

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • C.I.F. P 2001000 E • Tfonoa: 943 30 08 31 • Fax: 943 30 42 22 •
euskarazerbitzua@andoain.eus

1.- HELBURUA

Kontratu honen helburua da 10-16 urte bitarteko gazte etorri berrientzako euskaraz murgiltzeko saioak prestatzea eta ematea, bereiziz 10-11 urte dituztenak (LHko 5. eta 6. maileta koak) eta 12-16 urte bitartekoak (DBHkoak).

1.1. Zerbitzuaren ezaugarriak:

Andoainen bizi edota ikasten duten 10-16 urte bitarteko gazte etorri berriei euskarara modu ludiko batean hurbiltzeko saioak prestatzea eta ematea. Saioak astelehen eta astearteetan burutuko dira, arratsaldez, bi orduz, Andoaingo Gazte Lokalean, egun batean LH5 eta LH6ko gazteak, eta beste egunean DBHkoak. Izena ematen duten gazteen kopuruak hala eskatuko balu, bi saio egingo lirateke.

1.2. Zerbitzuaren beharra. Horrekin bete nahi diren udal helburuak:

- 10-16 urte bitarteko gazte etorri berriei laguntzea, era ludiko batetik, euskara ikas eta erabil dezaten.
- Euskara inguru atsegin batekin lotzea, hizkuntzarekiko atxikimendu positiboa sustatzea.
- Gazte horiek Euskal Herriko eta Andoaingo izaera ezagutzeko aukerak eskaintzea, euskarak eskaintzen dien mundua aurrean jartzea, errazago integra daitezen.
- Udaletxeko Gazte Lokalaren espazioa erabiltzean, Gazte Lokalak eskaintzen dizkien zerbitzuak ezagutzen dituzte, beren adineko beste gazte batzuekin harremanak izateko atea irekitzen zaie, eta, oro har, herriaren dinamikan sartzeko aukera izaten dute.

Momentu honetan Udalak ez du baliabide pertsonalik horrelako lanik egiteko, horregatik jo behar dugu kanpoko enpresetako zerbitzuetara.

1.3. Zerbitzuaren egokitasuna xede horientzat:

Gero eta gehiago dira Andoainera iristen diren gazteak inongo kontakturik izan ez dutenak euskararekin, baita hizkuntza hau badenik ere ez dakitenak. Ikastetxeetan ahalegin handia egiten bada ere horiek behar duten gaitasuna eskuratzeko, alde formal horretatik zaila izaten da euskararekiko atxikimendu positiboa lortzea, eta nekez eskuratzen dute gazte horiek behar luketen hizkuntza gaitasuna. Aisialdi esparruan, modu ludiko batean, berriz, errazagoa izaten da horrelako loturak lortzea.

2.- ZERBITZU EMAILEEN (HEZLEEN) EZAUGARRIAK

Ezinbestekoa izango da saio hauek emango dituzten hezleek Gizarte Integrazioan goi mailako zikloa izatea, edo, hori izan ezean, Gizarte Hezkuntzarekin, Gizarte Lanarekin, Irakasletzarekin, Pedagogiarekin, Psikologiarekin eta abarrekin lotutako ikasketetan diplomatuak edo lizentziatuak izatea.

Euskara-gaitasunari dagokionez, C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute jarraian zehazten diren titulu edo ziurtagirien bidez. Aipatutako euskara-gaitasuna agiri bidez egiaztatu gabeko langileei mailaketa-probak egingo dizkie Udalak. Hauexek dira aipatutako C1 maila egiaztatzeko

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • C.I.F. P 2001000 E • Tfonoa: 943 30 08 31 • Fax: 943 30 42 22 •
euskarazerbitzua@andoain.eus

balio duten titulu edo ziurtagiriak:

1- 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denak, arautzen dituen titulu eta ziurtagiriak

2- Apirilaren 3ko 47/2012 dekretuan euskara gaitasuna egiaztatzeari dagokionez, ezarritako salbuespenak.

3.- EGINKIZUNAK.

Andoainen bizi edota ikasten duten 10-16 urte bitarteko gazte etorri berriei euskarara modu ludiko batean hurbiltzeko saioak prestatzea eta ematea. Saioak astelehen eta astearteetan burutuko dira, arratsaldez, bi orduz, Andoaingo Gazte Lokalean, egun batean LH5 eta LH6ko gazteak, eta beste egunean DBHkoak. Izena ematen duten gazteen kopuruak hala eskatuko balu, bi saio egingo lirateke.

Talde bakoitzean, gazte kopurua, gutxienez, 6koa izango da, eta gehienez, 22koa. Bi hezle beharko dira talde batean 10 gazte baino gehiago elkartuz gero.

Urriaren 25erako 6 gaztek, gutxienez, eman ez balute izena, kontratua ez da sinatuko eta egitasmoa bertan behera geratuko da.

Saioak emateaz gain, urtarrilean eta ekainean ekimenaren balorazio idatzia aurkeztuko dute Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan.

4. EGUTEGIA

Saioak azaroan hasi eta hurrengo urteko maiatzaren amaieran bukatuko dira. Talde bakoitzarentzat, guztira, 23 egun, beraz, 46 ordu. Saio bakoitzaren prestaketarako ordubete eta hogeita hamar minutu eskainiz gero, 80,5 ordu. Era berean, hezle batek eskaini beharko lizkioke beste 12 ordu talde bakoitzari koordinazio lanak burutzeko; beraz, 92,5 ordu /begirale/talde izango dira.

Ordu horietaz gain, taldeen arteko eta udalarekiko nahiz ikastetxeekiko harremanak errazteko koordinatzailearen figura ere ikusten dugu. Pertsona horrek 15 ordu eskainiko dizkie eginkizun horiei urritik maiatzera.

Gazte Lokalaren egutegia eta programazioaren arabera aldaketaren bat egon daiteke data, egun eta ordu kopuruetan, baina hala balitz azaroaren 1 baino lehen jakinaraziko litzaioke enpresa esleipendunari.

5.- PREZIOA

Kontuan izanda horrelako jarduerak BEZ salbuetsita duela, 30 euro/orduko/begiraleko prezioa estimatu dugu, beraz, 92,5 ordu horiek emateko, 2.775,00 euro/begiraleko. Lau talde sortuko balira, eta talde bakoitzean bi begirale arituko balira, 22.200 euro ordainduko genuke begiraleen zerbitzuagatik. Zerbitzu honi gehitu beharko litzaieke koodinatzailearen 15 orduak, 35 euro/orduko, guztira 525,00 euro. Koordinaziorako ordainketa hau dagokio 3 edo 4 talde egonez gero. Talde bat edo bi izanez gero, koordinazio orduak jaitsiko lirateke 8 ordutara, beraz, 280,00 euro.

Horretaz gain kontuan hartu beharko genuke aparteko hezitzaile bat talderen batean behar bereziak dituzten gaztetxoak sartuko balira. Lau talde antolatuko balira, eta talde bakoitzean horrelako gaztetxorik egongo balitz, beste lau hezitzaileren jarduna sartu beharko genuke, hau da, beste 11.100 euro (2.775 x 4).

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • C.I.F. P 2001000 E • Tfonoa: 943 30 08 31 • Fax: 943 30 42 22 •
euskarazerbitzua@andoain.eus

Aparteko gastuetarako (materialak, txangoak…) gehienezko 850 euroko kopurua (BEZ barne) aurreikusten da. Gastu hauek aparte fakturatuko dira, dagozkien zurigarriak aurkeztuta.

Gauzak horrela, eta gehienez ere, zerbitzuaren gehienezko kostua 34.675,00 eurokoa litzateke (22.725,00 + 11.100 + 850,00).

6.- FAKTURAZIOA

Enpresa esleipendunak horrela fakturatuko du zerbitzua, betiere aparteko gastuak kontatu gabe:

%40: abenduan

%40: martxoan

%20 + aparteko gastuak: ekainean

7.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteko azkeneko eguna aurtengo abuztuaren 30 izango da, eta nola non aurkeztu behar diren, baldintza administratibo berezien karatulan dago jasota

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • C.I.F. P 2001000 E • Tfonoa: 943 30 08 31 • Fax: 943 30 42 22 •
euskarazerbitzua@andoain.eus